

Ibilbide moreak txostena aurkeztu du EGK-k

- Hainbat datu azpimarratu ditu Maialen Olabe EGK-ko presidentak: emakume gazteek 266€ gutxiago ordaintzen dituztela bataz beste eta emakumeen %48a dagoela lanaldi partzialean
- Hobetze aldera administrazioei genero-ikuspegia txertatzeko eskatu die Olabek, baita Berdintasun Planen jarraipen zorrotzagoa egiteko

Berdintasun lan-arloa berreskuratu ostean "emakume eta gizon gazteen laneratzea berdina zen aztertzea izan da txosten honen helburu nagusia" azpimarratu du Olabek. Aurretik Enplegu eta Etxebizitza lan-arloak gazteriak bizi dituen bereizketa egoerak azalarazi eta salatu ditu, besteak beste [*Ekin ala plof \(Gazteen ekintzailletza\)*](#) eta [*SOSgazteak, gazteen lan emigrazioa*](#) txostenen bitartez, baina EGK-ko presidentek adierazi duenez "gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak eta hauen efektuak mahai gainean jartzea ezinbestekoa iruditu zaigu".

"Datu kuantitatiboak eta kualitatiboak izan ditugu kontuan, errealitatea modu zintzoan islatzeko baina gertukoa izateari utzi gabe". Iturrien artean Eustat eta Gazteriaren Euskal Behatokia nabarmendu ditu Olabek, gerora hauek gazteen diskurtsoarekin osatuz. "Lan-arloko lantaldeez eta Gasteizen apirilean egin genuen Hiruburuaz baliatu gara horretarako".

Ibilbide moreak: bereizketa anitz oraindik ere

EGK-ko presidentak "Ibilbide Moreak" txostenetik hainbat datu nabarmendu ditu: lehenik, emakume eta gizonezkoek desberdintasunak erakusten dituztela ikasketak aukeratzekoan eta honek segregazio horizontala dakarrela; ondoren, emakumeek eta batez ere gazteek lehen laneratzean estetika edo amatasunarekin lotuta dauden hainbat galdera matxista entzun behar dituztela; era berean, emakume gazteek beraien lankide gizonezkoek baino 266€ gutxiago ordaintzen dituztela bataz beste; eta, azkenik, "lanaldi partziala historikoki emakumeentzat diseinatutako lan gisa ulertu dela, eta, ondorioz emakumeen %48a horrelako lanaldian dagoela, gizonezkoen bikoitza baino gehiago".

Horren aurrean, gaur goizeko prentsaurrekoan Olabek "datuen sakontasun maila igotzea" proposatu du, azterketa ahalik eta osatuena eta fidagarriena izateko. Administrazioei Berdintasun Planen jarraipen eta ebaluazio kontrol altuagoak eskatu dizkie, izan ere neurri asko paperean soilik geratzen dira. Enpresei orokorrean genero-ikuspegia txertatzea eskatu die EGK-ko presidentak, "bai negoziazio kolektiboan, bai lan-arloko segurtasun formakuntzan eta bai politikak diseinatzerako orduan".

Azkenik, agerraldian adierazi duenagatik txostenaren aurkezpena abiapuntua besterik ez da. "Emakume gazteen galera konkrituak ikusarazi eta administrazioen aldetik hauen aurka lan egiteko konpromisoa nahi dugu", aurreratu du Olabek. Horretarako eskua luzatu die administrazioei hauek nahi dutenean "bildu, egiturazko desberdintasunak aztertu eta nola konpondu pentsatzeko".